

ALKATE MEMORIA, 2.008KO AURREKONTUA

Legegintzaldi honetako lehen aurrekontu proiektua dugu esku artean. Gure herriaren errealitatek abiatu egin dugu, gure herria eraldatzeko tresna eraginkorra izateko xedearekin. Prozesu horretan tresna garrantziko bat da dudarik gabe, baina beste borondate batzuen eta azken buruan guztion inplikaziorik gabe, administrazioen, herritarren eta udaletxeko talde politikoen laguntzarik gabe, ez du nahi dugun emaitza lortuko, hots, duela hamarkadatik eskatzen ari garen hiri-berriztatzea.

Aurrekontua ez da helburu bat bere baitan. Erronka berriak bururatzeko tresna bat da, lehenago adierazi bezala. Gobernu talde berri honek, buru nauela, ilusio handiz ekiten dio apustu honi. Apustu honek ahaztu ezin dugun errealitate sozial, ekonomiko eta hirigintzakoari erantzun nahi dio.

Batere eroso ez den aurrekontu-errealitate bati egin behar diogu aurre. Bigarren urtez jarraian aurrekontu luzatuarekin funtzionatu beharrak nahasmendua eta kontrol gabezia ekarri du finantza eta ekonomia arloa, eta hori bideratu behar dugu. Legegintzaldi honetako lehen hilabeteetan ahalegin handia egin dugu gai honetan ordena jartzeko eta esan dezakegu, neurri handi batean, lortu dugula egoera kontrolatzea, nahiz eta irudi zehatzagoa ekitaldia amaitzean edukiko dugun. Egin ditugun doikuntzek, eta gastuaren kontrolak laguntzen digute errealitatearen irudi hurbilagoa izaten eta diagnostiko erreala horren arabera prestatzen aurrekontua.

Errealitate hori aztertzeak, eta helburu estrategikoak udaletxeko ordezkariak eta herritarrek partekatu beharrak aurrekontu-planteamendu bikoitza egitera eraman gaitu. Alde batetik aurrekontu-proiektu hau aurkezten dugu 2008rako, aurrerago adieraziko ditugun helburuekin eta bestalde planteatzen dugu bigarren ekitaldi bat, premien azterketarekin uztartuago egongo dena, lehentasunekin eta landu nahi dugun Plan Estrategikoaren emaitzarekin, hartara baliabideak dituzten administrazioei helburu garbiak azaltzeko eta finantzatu beharreko proiektu argiak.

Gure helburua da, beraz, lehenik, helburu orokorrak azaltzea, eta bigarren zatia memoria honen azkenerako uztea.

Lehen postuan jarri nahi dugu, etorkizunari begira izan behar duen garrantziagatik, gobernu talde honek egiten duen proposamena gure herriarentzat plan estrategikoa egiteko. Planteamendu hau ez da berria, Mugen batzordeak jada planteatua du hausnarketa eta premia hau lehen bileretatik. Legegintzaldiaren hasieran gaudenez, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak diru-laguntzak emango dituela aprobetxatuz, heldu da garaia horri aurre egiteko. Plan estrategikoak tresna bizia behar du izan herritarren gidaritzan laguntzeko, ekintza eta zuzendaritza politikorako gida bat, etorkizunean helburu estrategikoak eta kudeaketaren lehentasuneko ardatzak zehaztu eta finkatutako helburuak beteaz joateko.

Era berean garrantzikoa da oso Demokrazia Parte-hartzailearen arloa garatzea eta pasaitarrak Udalaren estrategia eta helburuetan partaide izatea. Gure herria eraikitzeke erabakigunea Pasaian egon behar du eta pasaitar guztiok egin behar dugu denon artean. Benetan egungo egoerari irtenbidea aurkitu nahi badiogu, praktikara eraman behar dugu herritarrok dugun gaitasuna eragiten diguten gaietan erabakiak hartzeko. Nire konpromiso sendoa adierazten dut etorkizuna batera eraikitzeke bizilagun guztion artean. Horixe da memoria honetan jasotzen dudana inbertsio garrantzizkoeneko bat: herritarrek udal kudeaketa bere egin dezaten ekintzak eta estrategiak sustatzea.

Horretarako lehen urratsa **komunikazio plan** eraginkorra burutzea da, eztabaidaren eta erabaki partekatuen kultura garatzeko. Zenbait eztabaidagunetan egin diren gogoeten ondorioetatik atera daitekeenez, batez ere Mugen Batzordean, behar-beharrezkoa da herritarren ilusioa eta parte hartzeko gogoia berpiztea, eta horretarako ezinbestekoa da komunikazio plana izatea nahi duten guztiek behar duten informazioa izan dezaten gero erabakietan, helburuetan eta estrategietan parte har dezaten.

Aurkezten ari garen aurrekontua etorkizunean izan behar duenerako prestaketa bat da. Horren harira, ezarri ditugun helburuetako bat **gastua kontrolatu eta antolatzea** da. Ohiko diru-sarrerak eta gastuak kontrolatuz modu eraginkorragoan aritu ahalko gara inbertsioen kapituluan, eta egokiago erantzun ahalko diogu beste administrazio batzuen ahalezko finantzazteei. Proiektuan ahalegin handia



dago norabide horretan. Egia da ahalegin honek beste sail batzuen lankidetzaz behar duela, eta koordinazioa eta zuzendaritza arlo ekonomikotik.

Hala ere, gastua kontrolatzea ez da aski, gure herriak inbertsioak behar ditu, eta gainerako administrazioei Pasaia biziberritzeko konpromisoa betetzeko eskatuko diegu, baina aipatu dugun gastu-kontrol horrek aurrera joan behar du etorkizunean egoera hobean egon gaitezen.

Aurkezten dugun proiektuak egingo diren gastu guztiak jasotzen ditu, batzuek gogokoak ez baditugu ere, esaterako, kale-garbiketako gastua; egingo direla seguru gauden gastu guztiak, eta ekitaldi honetarako berri-berritik egiten ditugun proposamenetatik etorriko direnak.

Hiru dira proiektu honetan sartu nahi izan ditugun berrikuntzak. Alde batetik, Enpleguaren, Tokiko Garapenaren eta Merkataritzaren izenburuaren pean esparru horretan egiten ziren ekintzak bildu nahi izan ditugu, eta arreta berezia jarri dugu enplegu-programetan eta merkataritzaren garapenarekin zerikusia dutenetan, geuk finantzatuak izan edo Eusko Jaurlaritzak.

Beste berritasun garrantzizko bat **berdintasunaren arlorako azpiprograma** sortzea da. Gure gizarteko errealitate bati erantzuten dio, zoritxarrez bazterrera utzia izan dena. Ez ikusiarena eta ez entzunarena egin zaio, emakumea emakume izateagatik bereizteari, eta benetan errealitate dramatikoak ezagutu ditugu. Bada garaia Pasaia tokiko administrazioetik arazoari bere osotasunean heltzeko. Emakumeak Pasaian bizi duen egoera aztertu behar dugu, politika aktiboak bultzatu behar ditugu bereizkeriarik gabe bizi dadin eta genero bortizkeriaren arazo larriari aurre egiteko, hezkuntzan, gizarte eta kultur ekintzetan eraginez, eta lan prestakuntzan eta enpleguan, eta udaletxea bera egokitzetik abiatu. Horretarako aurrekontuan jaso da Berdintasunerako Teknikariaren lanpostuaren sorrera. Figura hau bada inguruko administrazioetan, eta guk ezin dugu hori gabe jarraitu, esparru horretan Pasaiaiko datuak kezagarriak direnean.

Berritasunekin jarraiki, **migrazio eta aniztasunaren azpiprograma** sortuko dugu. Arlo honek ere bere lekua behar du. Euskal Herria oro har eta Pasaia bereziki, pertsonen joan-etorri handiko lekua izan da. Pasaia egungo biztanleetatik asko beste nazio eta herri batzuetan jaiotakoak dira, gizabanako eta gizataldeen artean heterogeneotasun handia dago eta gizarteratze maila alde handikoak: batzuk oinarritzko eskubideetan oso goiti, beste batzuk eskubide batzuekin bakarrik, eta beste batzuk batere gabe. Edukiz jantziko dugu, baliabideak bideratuko ditugu, benetan Migrazio eta Aniztasunaren politika orokorra abian jartzeko, erreal, arlo guztietan presente egongo dena, nazionala eta elkarrenganako errespetuan oinarritua.

Era berean, duen garrantziagatik, **udal egoitzen azpiprograma**, azpimarratu nahi dugu, hori arduratuko baita Udaleko administrazio-egoitza guztien mantentzeaz. Bateratze horrek baliabideen kudeaketa eraginkorragoa ekarriko du, informazio galera saihestuz. Azpiprograma honetan bildu ditugu mantentze, hornikuntza eta udal zerbitzuetako bulego-kontratuen gastu guztiak.

Berrikuntzen berri eman ondotik, gastuen atalari lotuko gatzazkio. Lehenik nabarmendu nahi dugu ekitaldi bikoitza proposatzen dugula, hasieran adierazi dugun bezala. Bigarren zatia memoria honen amaieran adieraziko dugu, hots, inbertsioen atala, 3.700.000 euro hain justu, aurrekontu guztiaren %17,80ko ehuneko. Inbertsioetan nabarmentzekoak dira, alde batetik, eremu degradatu eta premiazko jarduketaren eremuen dekretuaren babespean garatuko direnak, 2.000.000 eurokoa, eta bestetik, jarduketaren handiagatik, Karmengo Amako eraikin nagusiaren estalkia berritzea, 560.000 eurokoa, Eusko Jaurlaritzak ere finantzatzea aurreikusten dena. Proiektuen kontu-sailaren garrantzia ere azpimarratu behar da, lehenik, Portuko Plan Berezia bideratzeko behar diren agiriak idazteko eta bigarrenik, bigarren ekitaldirako eraikitzea proposatzen dugun premia eta lehentasun korpus horretako proiektuak idazten jarraitzeko. Gainerakoak, instalazio berritze edo egokitzeak dira zerbitzu hobea eskaini dezaten.

Beste alderdi bat arreta jartzea merezi duena hiri-mantentze lanari ematen zaion axola da, erabat harturik. Hiri-mantentze lanerako langile-soldatak, kale eta eraikin publikoen garbiketa, hornikuntzei eskainitako ohiko gastuaren kontu-sailak, 5.144.000 euro jotzen dute, hots, ohiko gastuaren %29,90. Uste dugu nabarmentzekoa dela ahalegin hau, eta bistan da, gastuen kudeaketan hobekuntzak eta optimizazioak lagundu behar dio.

Langileei doakienez, %4ko soldata-igoera aurreikusten da, **postuen balorazioa** aplikatzeko soldata-kostua handitzeko premia jasotzen da, %2an, eta **giza baliabideen teknikaria** lanpostua sortzea ere jasotzen da berriz, eta horrek lagunduko du udalaren giza baliabideak hobeto antolatzen eta optimizatzen. Bestalde, Berdintasunaren Arloko Teknikaria sortzea ere planteatzen da, lehenago adierazi dugun bezala, eta gainerako langileak mantentzen dira, kanpoko finantzazioetatik edo plantillara bildu edo ez aztertzea xede duten programak errespetatuz.

Aurrekontuan pisu handia izaten jarraitzen du gizarte, kirol eta kultura arloko arreta eta prebentzio programen eta kontu-sailen eraginak. Hiru arlo horiek batera udal aurrekontuaren %30 jotzen dute, eta horiei Zahar Egoitza, Udal Euskaltegia eta Pasaia Musikal fundazioen gastuak erantsi behar zaizkie. Arlo horretan jarraitu behar dugu eragiten, ez baitago herritarrak zerbitzatzeko modu hoberik prebentzioa, politika integratzailea eta normalizatzailea egitea bezalakorik. Hala ere, aitortu behar dugu arreta-programen aldean prebentzioaren pisia dezente murriztagoa dela.

Aipatu ditugun arloetan aurrekontuak jasotzen dituen aldaketa esanguratsuenak eta proposamen berriak erakutsi nahi ditugu. Alde batetik, gizarte arloan egiten den apustu sendoa, migrazioaren problematikari aurre egiteko arreta-programak bultzatuz, bi aldetatik, bat, azpiprogramatik beretik, eta bestea, gainerako sustapen arloko baliabide normalizatuetatik, multzo migratzaileek gure herriaren gizarte garapenean duten eraginari ardura berezia eskainiz. Bestalde, berdintasunaren arloan burutzea proposatzen den diagnostikoa, Pasaian emakumeak duen errealitateaz, behar diren arreta eta prebentzio ekintzak prestatzeko. Kultura sustatzeko kontu-sailen igoera ere deigarria da aurrekontu honetan, neurri handi batean egingarri Iberdrola enpresak arlo honetan egiten duen ekarpenagatik, eta beste alderdi bat nabarmentzen dena aurrekontu honetan da nerabeentzat hain garrantzizkoa den gaztelekua, San Pedro-Trintxerpen eta Donibanen hain harrera ona izaki, Antxon ere abian jartzeko bidea egitea.

Euskarari dagokionez, gure errealitatea aztertu eta hartaz gogoeta egitea, premia eta lehenetasun berriekin harremanetan jartzea, eta honek ardatz estrategikoetan sakontzera garamatza, eta horretarako ezinbestekoa da gure hizkuntza nazionala normalizatzeko udal politikak nondik jo behar duen zehaztea eta gure jendartea eta eragileak lan horretan inplika daitezen.

Diru-sarrerei doakienez, lehenbizi nabarmentzen dena da Foru Funtsen bidez tokiko erakundeen finantzazioaren pisu espezifikoa. Diru-iturri nagusia izaten jarraitzen du, diru-sarreraren erditik gora hortik datozelako. Gainerakoan, zuhurtziaz aritu gara, egungo ekitaldiko aurrekontu-garapenaren emaitza errealak aintzat hartuz, hurrengo ekitaldirako proiektio fidagarria eta proposatzen diren programa batzuen finantzatzeko asmoen balioztatzea. Halaber, kontuan izan behar dugu Eraikuntza, Instalazio eta Obren sarreretan aurreikusietatik erdia sarrera ez ohikoari dagokiola, Velasco etxeen eragiketaren lehen fasearen eraikuntzari, eta hortaz, diru-sarrera hori ez litzateke sarrera ohikotzat hartu behar ez ohikotzat baizik, sendotzeari begira.

Honaino heltzen da memoria honen lehen zatia. Lortu nahi diren helburuen ardatz garrantzizkoenak zirriborratu ditut, nahiz eta udal departamentu garrantzizkoenetan, batzordean bertan harilduko diren alderdirik garrantzizkoenak.

Hemendik aurrera, komentatu dudan ekitaldiaren bigarren zatia planteatu nahi dut. Horren xedea borondateak batzea da, guztion artean agiri bat eraikitzea, herritar eta ordezkari politikoen artean. Agiri horrek zehaztu nahi du Pasaia berrizatzeko zein premia jotzen diren giltzarritzat, eraikitako ondarearen gainean zer ekintza burutu pasaitarrei ilusioa itzultzeko, eta urri ditugun hornikuntza-ekipamenduak. Premia, egokiera eta bizi-kalitatea hobetzeko eraginaren aldagaiak kontuan harturik, lehenetasunen arabera zerrendatzea. Seguru ariketa zaila dela, bakoitza bere herriaz duen errealitate subjektibotik abiatzen denez, bere bizipenetatik. Baina ziur gaude partekatzen hasten bagara konturatuko garela gutxi-asko gauza berdinez ari garela, erreferentzia berberak eta proiektu berdintsuak ditugula. Ideiarik ez zaigu falta, premiak gainean ditugu, ez alferrik urteak daramatzagu premia nabarmenez hitz egiten.

Egin dezagun beraz ariketa hau, eta uztartu dezagun plan estrategikoari buruzko hausnarketa eta ondorioekin. Hortik aurrera, gida bat izango dugu gure zereginerako, oinarritzko agiri bat beste administrazio batzuei gure lehenetasunak zein diren planteatzeko, gure herria berrizatzeko ardatzak zein diren. Hortik aurrera, aitzakiek ez dute balioko, udalak proiektuak prestatzeko betebeharra izango du, haien egikaritzea erraztekoa, eta ahal duen neurrian finantzatzekoa. Foru, autonomia eta estatu



administrazioek ez dute eztabaidatu beharrik izango zer egin behar duten, bakoitzak beraren eskumen eta erantzukizunen arloan benetan Pasaiaren aldeko apustua egiteko aukera izango dute, helburuak eta ekintzak izango dituzte Pasaiari dagokiona itzultzeko, duela bi hamarkada baino gehiago krisi egoerak sortu zizkigun zauriak josten ahalegintzeko. Pasaitarrek ilusioa sortuko digun agiria izango dugu, agiri zehatza, ideiekin, zer eskatzen dugun galdetzen digutenean proiektuak izango ditugu aipagai eta erreferentzia bat duintasunez exijitzeko merezi dugun begirunea, izen-abizenak ditu eta eskas den bakarra borondate politikoa da aurrera eramateko, urte askotako finantzazioa bururaino eramateko, eta konpromisoa Pasaia Pasaiatik berreraikitzeko.

Oinarritzko agiria jartzen dugu abian, martxan dauden ekintzetatik eta egikaritzeko konpromisoa dutenetatik abiatzen dena, gainera planteatuta daudenak jasoko dituen eta gobernu talde honentzat prozesu honetan giltzarri direnak. Ekintza andana horrek hurrenkera bat izango du, eskarmentuan oinarrituriko lehentasunen pertzepzioan oinarritua. Seguru gaude ertz guztiak ez daudela jasoak, proiektuen hurrenkeraz eztabaidatuko dugula eta eztabaidaren buruan ideia berriak bururatuko zaizkigula, gogoeta estrategikoan premia berriak adieraziko direla eta lehentasunak aldatuko ditugula.

Memoria honi amaiera ematen diot erabat konbentziturik planteamendua hobetu daitekeela, aurrekontu aldetik bezala lehentasunen alorrean proposatzen dugun ariketan. Talde politikoak eta herritarrak adoretu nahi ditut beraien iritziak eta ekarpenak egin ditzaten, guztion artean lanerako oinarri bat eraiki dezagun, eta gai izan gaitezen ilusio aski sortuko duten tresna eraginkorrak sortzeko gure herria berriz ere etorkizunarekin ikus dezagun.

Neure egiten dut bizilagunen mugimenduaren goiburua, PASAIA BADA GARAIA. Etorkizun hobe merezi dugulako, eraiki dezagun.

Maidar Ziganda
Pasaia alkatea